

Lehiaketarako oinarriak

KERIK GABEKO GAZTEAK 2025-2026

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak argazki-lehiaketa bat antolatu du Kerik Gabeko Gazteak ekimenaren barruan.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten ikasgelek Kerik Gabeko Gazteak ekimenean izena eman behar dute web-orrian dagoen formularioaren bidez. Izena emateko azken eguna **2025eko abenduaren 19a da, egun hori barne**.

1. XEDEA

Lehiaketan, **gelakideen artean sortutako argazki** edo **argazki-konposizio bat** aurkeztu behar da, hurrengo atalean aipatzen den gaiarekin lotuta.

2. GAIA

2025-2026 ikasturterako gaia **“Bapeatu eta erre gabe denok irabazle”** izango da.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako **LH 6. eta DBH 1. eta 2.** mailako gelek parte har dezakete.

4. LANEN EZAUGARRIAK

Argazkiek edo **argazki-konposizioek** bigarren oinarrian azaldutako gaiari buruzkoak izan behar dute, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lana osatzen duten elementu guztiak ikasleek berek egindakoak izan behar dute, eta **debekatuta dago erabiltzea ikasleek eginak ez diren argazki, argazki-konposizio edota beste elementu batzuk**.
- **Testu edo eslogan** motz bat ere sartu daiteke, gai hauei buruz: **bizi-ohitura osasungarriak, ez erretzearen abantailak (ekonomiarako, osasunerako, harremanetarako) eta abar**.
- Testua sartzen bada, **mezu positiboak** erabiltzea gomendatzen da; gaixotasun, heriotza, ezintasun edo antzeko alderdiak islatzen ez dituztenak.

- **Ez** dira onartuko **marka komertzialen edota, benetako edo komikietako pertsonaien izenak nahiz marrazkiak** dituztenak.
- **Ez** dira onartuko **iraingarriak edota bortitzak diren lanak edo mezu sexistak** erabiltzen dituztenak.
- Gela bakoitzak **gehienez 5 argazki edo argazki-konposizio** aurkez ditzake.
- Aurkeztutako lanak editatzeko, edizio grafikorako edozein programa erabil daiteke, eta beharrezkoa da **JPG / JPEG formatuan** aurkeztea.

5. LEHIAKETAREN GARAPENA

Lehiaketan parte hartzen duten ikastetxeek **2026ko apirilaren 1era arte dute lanak aurkezteko aukera, egun hori barne**. Lanak helbide honetara bidali beharko dituzte: kerik-gabeko-gazteak@euskadi.eus

Mezu elektronikoaren gaian **ikastetxearen izena** eta **lurralde historikoa adieraziko** dira.

Argazki bakoitzean adierazi behar da zein den **ikasgela egilea (maila eta gela)**.

6. LANEN BALIOESPENA

Epaimahaiak faktore hauek izango ditu kontuan:

- Lanak ekimenaren xedea eta gaia adieraztea.
- Edukiak eta baliabide espresibo eta artistikoak sormen handikoak izatea.
- Transmittzen den mezua originala izatea.
- Kritikoak izatea tabakoaren industriaren interesekin.
- Irudiak eta testuak gazteentzat egokiak izatea.

7. SARIAK

Ekimenean parte hartzen duten ikasle guztiek opari bana jasoko dute, Kerik Gabeko Gazteak programaren logoarekin.

Horrez gain, ikasgela irabazleek taldeko jarduera ludiko bat jasoko dute sari gisa.

Sari bat emango da heziketa-ziklo bakoitzeko eta lurralde historiko bakoitzeko.

Epaimahaiaren erabakia parte hartzen duten ikastetxeei jakinaraziko zaie.

Epaimahaiak eskubidea du sari guztiak ez emateko, eta lehiaketa esleitzeke gera daiteke.

Sariak **2026ko maiatzaren 29an** banatuko dira, Kerik Gabeko Astearekin bat eginez.

8. EGILE ESKUBIDEAK

Osasun Sailak lehiaketara aurkeztutako irudiak argitaratzeko eta erabiltzeko eskubidea izango du, ikastetxeak baimena eman ondoren.

Kasu guztietan, irudietan aipatuko da zein ikastetxekoak diren irudi bakoitza.

9. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.